

CAGNOTTE



# Sustengua 2022an Senperen arrestatu 5 gazteei - Soutien aux cinq jeunes

[EUS]2022ko ekainaren 22an, arrestatzeak iragan ziren Senperen, Ipar Euskal Herriko etxebizitzaren arazoa salatzen zuten pintaketa batzuen ondorioz. Egun hartan egin zen mobilizazioan, ehundaka pertsonak salatu zuten pintaketa simple batzuegatik erabilia izan zen neurri gabeko egin moldea. Geroztik, bortz atxilotuak justiziaren aintzinerara joan dira eta isunak ezarri dizkiete eta murru zikinduak berriz tindatzeko gastuak ordaindu behar izan dituzte. Bistan dena, gure etxebizitzaren aldeko borrokaren noblezia goraiatu dela agintarien partez, baina arazoa salatzeko modu delikatuak, kondenatua. Eta gaur zertan gira? Gauzak zentzu onean aldatu direa? Geroztik, alde guzietako hautetsiek erabaki egokiak hartu ote dituzte espekulazio horren kontra egiteko eta tokiko biztanleei bizitegi bat segurtatzeko? Begi bistakoa da etxebizitzaren arazoak dirauela eta areagotzen ere ari dela. Kasik astero, salmenta espekulatibo baten berri ukaiten dugu edozoin Ipar Euskal Herriko xoko batean. Jakiten dugu gero eta jende gehiagok haien etxebizitza utzi behar izaten dutela, azken hauek epe laburreko alokairuak bilakarazteko. Gero eta jende gehiagok eta, bereziki, gazteek zailtasunak dituzte herrian bizitzeko alokairuan zein jabetzan. Egia da, zombait hautetsik inizatibak hartzen dituztela espekulazioaren fenomenoak geldiarazteko eta urte osorako bizitokiak berrezartzeko, baina maiz eztabaida haundiak izaten dituzte eta biziki ttipiak iduri dute arazoaren

PARTICIPEZ À LA CAGNOTTE :

<https://www.onparticipe.fr/c/UyzTER6U>



*Scannez-moi !*

Cette cagnotte vous est proposée par :  
**Mireille ETCHECHOURY**